

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



KANPO HARREMANETARAKO PLANA

JARDUEREN JARRAIPENA
2018 URTEA

Maitza, 2019

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1 SARRERA	4
2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2018KO JARDUEREN JARRAIPENA	7
2.1 1. helburua: “Euskadi eragile globalaren posizioan jartzea”	7
2.1.1 1.1 ekintza ildoak: Euskadi Basque Country markaren zabalkundea egitea.....	7
2.1.2 1.2 ekintza ildoak: Euskadin 2030 Agendaren aplikazioa suspertzea	10
2.1.3 1.3 ekintza ildoak: Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea..	12
2.2 2. helburua: “Euskadiren presentzia indartzea Europan”	14
2.2.1 2.1 ekintza ildoak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea	14
2.2.2 2.2 ekintza ildoak: EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea	17
2.3 3. helburua: “Munduko euskal interesak bultzatzea”	19
2.3.1 3.1 ekintza ildoak: Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea	19
2.3.2 3.2 ekintza ildoak: Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea	21
2.3.3 3.3 ekintza ildoak: Euskal gizartearen diasporatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea	24
3 ONDORIOAK	27

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. L1.1 Euskadi Basque Country marka zabaltzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	9
2. taula. L1.2 Euskadin 2030erako Agendaren aplikazioa suspertzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	11
3. taula. L1.3 Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	13
4. taula. L2.1 ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea	16
5. taula. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	18
6. taula. L3.1 Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	20
7. taula. L3.2 Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak	23
8. taula. L3.3 ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak. Euskal gizartea diasporatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea	25

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. L1.1 Euskadi Basque Country markaren zabalkundea egitea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	10
2. irudia. L1.2 Euskadin 2030 Agendaren aplikazioa suspertzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	12
3. irudia. L1.3 Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	14
4. irudia. L2.1 ildoaren barruan osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	16
5. irudia. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	18
6. irudia. L3.1 Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	21
7. irudia. L3.2 Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	23
8. irudia. L3.3 ildoaren barruan osatutako jarduerak: Euskal gizartea diasporatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez	26
9. irudia. % 100, >% 50, <% 50 eta % 0 bete diren jomugen ehunekoa	27
10. irudia. % 100, >% 50, <% 50 eta % 0 bete diren jomugen ehunekoa, helburu estrategikoaren arabera	28

1 SARRERA

2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia, aurrerantzean EBC, 2014az gero eta 2018tik eguneratua, Euskadi nazioartekotzeko politika bere esparru tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, eta bere helburua da *«Euskadi eragile global moduan kokatzea, Europaren proiektua eraikitzen espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua»*. Ikuspen hori nazioartekotze helburu estrategikoen multzo baten bidez gauzatzen da, eta helburu horiek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jarduera ardatzen duten **bost bektore komunetan** jasota daude:

- V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea
- V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea
- V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea
- V4. Europaren proiektuari laguntzea
- V5. Ezagutza atzitzea.

Maila operatiboan, EBCK, esparru dokumentua denez, **Nazioartekotzeko Plan Sektorialak** lantzea eta zehaztea aurreikusten du, bereziki protagonismo eta kanpo jarduera handiena duten eremuetan.

Ikuspegi horretatik, 2014an martxan jarri zen, EBCrekin batera, 2014-2017 aldirako **Kanpo Harremanetarako Plana** (aurrerantzean KHP), KHP 2014-2017, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren nazioarteko jarduera gidatzeko. **2014-2016 hirurtekoa**, KHPren jarduerak eta proposatutako jomugak betetzeari dagokionez, oso gogobetegarria izan zen, jarritako jomugak gainditu baitziren planteatutako jarduerarik gehien-gehienetan.

2017an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren atzerri harremanen plangintza, laguntza eta koordinazio lanak egiten jarraitu zuen, baina

barruko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa egiteko parte-hartze prozesu bat hasi zen, eta horren emaitza izan zen **2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plan berria ezartzea.**

Plan berri honek, kontuan hartzen ditu XI. Legegintzaldirako (2016-2020) gobernu programa berria eta aurreko urteetan munduan gertatu ziren aldaketa geopolitiko eta ekonomiko bortitzak, eta ezartzen dun Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren ekintza guztiek ondorengo misioari erantzun behar diotela:

Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak programatu, bultzatu eta koordinatzea, helburu izanik Euskadi eragile globala eta Europaren proiektuaren eraikuntzan leku propioa duena izatea eta munduan euskal interesak aldezte. Horretarako, Euskadiren ordezkari instituzionala izango da eta nazioarteko eragileekin aliantza estrategiko egonkorrak ezarriko ditu, kanpoko euskal gizataldearekin harremanak estutuko ditu eta 2030 Agendarekin euskal gizarteak duen konpromisoa proiektatuko du.

Misio hori aurrera eramateko, plana **hiru helburu estrategikotan** egituratzen da, 8 ekintza ildotan artikulatuta, eta berariazko 35 jardueratan konkretatuta, bakoitza bere jomugekin (44). KHPn zehaztutako helburu estrategikoak bat datoz EBCko bektoreekin eta hauek dira:

- **1. helburu estrategikoa: Euskadi eragile globalaren posizioan jartzea**
- **2. helburu estrategikoa: Euskadiren presentzia indartzea Europan**
- **3. helburu estrategikoa: Munduko euskal interesak bultzatzea**

Planteatutako jardueren jarraipena ziurtatu eta optimizatzeko, Planak Monitorizazio, Jarraipen eta Ebaluazio Sistema bat ezartzen du, Planaren aurrerabidea sistematikoki neurtzeko, planteatutako helburuak lortzeko behar diren doikuntzak arian egite aldera.

Jarraipen Sistema hori kontuan hartuta, txosten honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2018an egin dituen lanak aztertzen dira, eta Planaren hiru helburu estrategikoetan ezarritako ildo estrategikoen barruan jarduera bakoitzak eragin duen aurrerabidea zehazten da:

1. **L1.1 Euskadi Basque Country markaren zabalkundea egitea**
2. **L1.2 Euskadin 2030 Agendaren aplikazioa suspertzea**
3. **L1.3 Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea**
4. **L2.1 EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea**
5. **L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea**
6. **L3.1 Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea**
7. **L3.2 Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea**
8. **L3.3 Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea**

Txostena egiteko, 2018/12/31n *kanpoharreman.irekia.euskadi.eus* tresna informatikoan erregistratutako datuak hartu dira kontuan.

2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2018KO JARDUEREN JARRAIPENA

Atal honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2018-2020 aldirako KHPn planteatutako helburu estrategikoen arabera **garatutako jardueren analisia** aurkezten du.

Jarduera ildo bakoitzaren barruan **jarduera bakoitzaren betetze maila** aztertzen da 2018-2020 hirurtekorako ezarritako jomugen arabera. Azterketa honek Idazkaritzak egindako jarduera esanguratsuenak ere jasotzen ditu.

2.1 1. helburua: “Euskadi eragile globalaren posizioan jartzea”

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren lehen helburua **Euskadiren kanpo irudia Herrialde erakargarri eta lehiakor moduan proiektatzea da**, bere bakantasunagatik eta identitate propioagatik aitortua, eta erronka globalekin konpromiso handia duena. Horretarako, enfasi berezia jartzen da **Basque Country marka finkatzen, Euskadin 2030 Agenda aplikatzea suspertzen eta nazioartekotze arloko ezagutza sustatzen**, honekin kontestu internazionalen posizionamendu eta pisua irabazten laguntzen dela ulertuz.

2.1.1 1.1 ekintza ildoak: Euskadi Basque Country markaren zabalkundea egitea

2018an, **Euskadi Basque Country markak** rol protagonista bereganatu du atzerrian egindako jardueretan, bai Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bere zuzendaritzen eta ordezkariak bidez antolatutakoetan bai Eusko Jaurlaritza eta bere sektore publikoak eta Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileek antolatutakoetan.

Marka indartua eta batean duguna da, eta bere logotipoak rol nagusia izan zuen Urkullu Lehendakariak 2018ko urtarrilaren 24an **Euskadi Basque Country Estrategia eguneratua** aurkeztu zuenean, inoiz ospatutako lehen Euskadi Basque Country egunean, euskal gizartearen ordezkariak zabala osatzen zuten 400 pertsona baino gehiagoren aurrean, komunikabideetan oihartzun handia izan zuen ekitaldian. Aipaturiko Euskadi Basque Country eguna urterokotasunez gertatuko da ospakizunak hiru lurralde historikoetan txandakatuz. Halaber,

apirilaren 20an Kirmen Uriberen “Abangoardia maite duen antzinako herria” narrazioa aurkeztu zen Tabakalera, Urkullu Lehendakaria ere ekitaldi buru zela. Narratiba honek erantzukizuna eman zion marka betetzeko, gure baloreak, gure izaera, laburbilduz guk munduan egoteko, bizitzeko eta jokatzeko daukagun modua islatzeko beharrari.

Urtean zehar, **Euskadiren kanpo ordezkariak** marka bultzatzen lagundu dute, **suspertze jarduerak** lagunduz, besteak beste Expochess Nazioarteko Xake Torneoa Mexiko Hirian eta Kolonbian, erakustoki propioarekin International Trade Award Breakfast-en parte hartuz New Yorken. Horretaz gain ohizko babesak eskaini zaie euskal eragileei, hala nola, Basquetour-i Buenos Airesen eta Turismoaren Nazioarteko Azokan Palermoko Azoka Gunean, eta Etxepare Institutuari Madrileko Valle-Inclan Anztokian OBABAKOAK antzerki lanaren zabalkundearen edota Bruselako Komiki Azokan.

Bestalde, **Euskal Etxeak Herrialde markaren susperraldian funtsezko elementuak ere badirela agerian geratu da**. Markak gora handiko ekitaldietan proiektzioa izan du, esate baterako, Bruselako Euskal Astearen lehen edizioa egin zenean Bruselan, edota Buenos Airesko Laurak Bat Etxeak antolatutako jaian, hain zuzen, bertako agintariak esan zuten, 30.000 pertsona bertaratu ziren jaian. Nabarmendu daitezke ere Ameriketako Estatu Batuetako ordezkariak New Yorkeko Euzko Etxearekin elkarlanean antolatutako elkarretaratzeak. Orohar Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketak ere, Txilen eta Argentinan, Euskadi Basque Country markaren protagonismo argi bat izan zuen

Bestalde, Argentina-Mercosurren ordezkariak, Argentinako eta Uruguaiako euskal etxeekin batera, “Begiradak eraldatzen” erakusketa antolatu zuen, Emakundek berdintasun arloetan egiten duen lana Euskadi markari lotuz. Era berean, “ikus-entzunezko katalogoa” programan, Herrialde markari lotutako euskal ikus-entzunezko ekoizpena inguru australean suspertu zen Argentina-Mercosurreko euskal etxeen bitartez.

Herrialde marka **euskal expertisearen eta Euskadin garatutako jokaera onen zabalkundearen egin den ekitaldietan** ere proiektatu da ekonomiaren, enpresaren, kulturaren eta gizartearen ekosistemako eragileen eskutik.

Nazioartekotze ekosistemako eragileekin batera euskal expertisearen zabalkunderako garatutako ekintzen artean nabarmentzekoak dira IEM biltzarra (Mexikoko Enpresaburuen Nazioarteko Biltzarra) Chihuahua hirian, Giza Kapitala 4.0 Industrian biltzarra eta Industry 4.0 Basque Country-ren zenbait aurkezpen Mexikoko hirietan (Mexikoko ordezkariak), Kultura Ondarearen Europako Foroa eta *Policy Forum on Development* Bruselan, euskal sukaldaritzari

buruzko liburu baten aurkezpena New Yorken, genero berdintasunerako politiken aurkezpena Uruguaiako Parlamentuan, edo Etorkizuneko Hirien Jardunaldi baten antolaketa ACODALEkin (Kolonbiako Osasun eta Ingurumen Ingeniaritzaren Elkarte).

2018an Euskadi Basque Country marka ardatz nagusi moduan kontuan hartzen duten ekinbide garrantzitsuetan lan egiten hasi gara, datozen urteotan garatzeko, hala nola, **Euskadi Basque Country Laguna**, dekretua prestatzen ari garena, edo **Basque Country Eguna**.

Nolanahi ere, eta 2018 urtean betetzeko jarri ziren jomugei begira, **1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna eta 1.1.6 Euskal expertisea kanpoan zabaltzea** jarduerak pentsatutako jomugara iristea lortu dute.


1. taula. 1.1.1 Euskadi Basque Country marka zabaltzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
1.1.1 Antolatutako marka jarduerak	<i>Idazkaritzak antolatutako marka-jarduera kopurua</i>	13	60
1.1.2 Euskal Etxeek bultzatutako marka jarduerak	<i>Bultzatutako marka-jarduera kopurua</i>	27	250
1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna	<i>Euskadi Basque Country Egunaren ospakizun kopurua</i>	1	3
1.1.4 Euskadi Basque Country Laguna	<i>Euskadi Basque Country Laguna izendapenarekin omendutako pertsona kopurua</i>	0	30
1.1.5 Marka sustatzeko Euskadi Basque Country funtsa	<i>Funtsaren sorrera</i>	0	1
1.1.6 Euskal expertisearen kanpo proiektzioa	<i>Expertisea zabaltzeko euskal partaidetza izandako nazioarteko ekitaldi kop.</i>	9	28

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Era berean, eta begirada 2020 urtean jarrita, **1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna eta 1.1.6 Euskal expertisearen kanpo proiektzioa** jarduerak % 30 baino gehiago dute beteta (lehen ekitaldiari dagokiona izango litzatekeena), 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren helbururako jarritako jomugak betetzera begira. Gainerako guztiak, nahiz eta maila desberdinean, % 30 baino gutxiago dute beteta.

1. irudia. L1.1 Euskadi Basque Country markaren zabalkundea egitea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.1.2 1.2 ekintza ildoak: Euskadin 2030 Agendaren aplikazioa suspertzea

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **2030erako Agendaren sentsibilizazioan, prestakuntzan eta zabalkunde**an lagundu du Euskadin, kontuan hartuta Nazio Batuen Erakundearen 2030 urterako ezarritako jomugen lurralde egokitzapenari eta ezarpenari ematen zaion garrantzi handia. Ildo horretan, gai honi buruzko **lantalde eta jardunaldietan** hartu izan da parte, esate baterako, ELIKAK, Bilbao Art-ek, UNESCO ETXEAK, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutakoetan. 2030 Agendaren zabalkunderako kanpaina bat ere bultzatu da komunikabideetan Nazio Batuen eguna baliatuz, eta “GIH eta enpresak: joerak eta aukerak” jardunaldia antolatu da, SPRI eta Innobasque lagun. Era berean, 70 parte hartzaile izan zituen “Los ODS de las Naciones Unidas: Herramientas para mejorar las Políticas Públicas” izenburupeko prestakuntza programaren hiru moduluen koordinazioa eta jarraipena burutu da, eta 2030erako Agendari buruzko HAEEn ikastaroen lehen edizio honetako itxiera saio presentzialean parte hartu da. Aipagarria da ere, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

buru zuen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari batek, Nazio Batuen Erakundeak New Yorken 2030erako Agendari buruzko jarraipen eta azteketarako antolatutako High Level Political Forum foroan parte hartu izana. Testuinguru honetan Euskadik hainbat ekitalditan hartu zuen parte, eta horietan maila anitzeko gobernantzaren garrantzia nabarmendu zen GIHak lortzeko, eta Tokiko eta Eskualdeko Gobernuentzako ekitaldian 2030erako Agendari Euskal Herritik egin zaion ekarpena azaltzera gonbidatu zuten.

Eragile garrantzitsuekin eta GIH arloko sareekin lankidetzak eta aliantzak garatzeak ere esfortzu gehienak eraman ditu, gailenak hauek: **erakundearteko elkarlan** proiektua (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, EUDEL eta euskal hiriburuak), oraindik ere abiatze fasea, elkarrekin lan egiteko Basque Country 2030 Agenda eraikitzen edo Basque Country 2030 Agenda bera aurkeztea, PNUDeke parte hartu baitzuen.

Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzeari dagokionez, Think Europe 2030 jardunaldietan, GIHei buruzko Iberoamerikar Konferentzian eta aipaturiko High Level Political Forum 2018 foroan hartu da parte, eta Agenda Garapen Iraunkorrari buruzko Nazioarteko Konferentzian, Columbiako Unibertsitatean eta “European Sustainability Award” Sarian ere aurkeztu da.

Jarduera bizi hori Aginte Taulan islatzen da, 2018 urterako jarritako helburuak soberan beteta, bereziki **1.2.1 Euskadi Basque Country 2030 Agendaren sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin** eta **1.2.3 Nazioartean sustatzea** jardueretan. Aitzitik, **1.2.2 Erakunde, eragile eta sareekiko aliantzak** jardueraren adierazleetako bat ez da heldu 2018 urtean planteatutako jomugara.


2. taula. 1.2 Euskadin 2030erako Agendaren aplikazioa suspertzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
1. 2. 1. Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin	<i>Idazkaritza partaide den sentsibilizazio, prestakuntza eta zabalkunde ekintzen kopurua</i>	13	20
1. 2. 2. Erakunde, eragile eta sareekiko aliantzak	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzea</i>	1	1
	<i>2030erako Agendaren alde dauden Aliantzako kideen kopurua</i>	0	50
1. 2. 3. Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agendaren zabalkundea egiten den nazioarteko ekitaldi kopurua</i>	14	12

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2020 urterako jarri diren helburuei dagokienez, egindako lan handia jardueren betetze mailan islatzen da, horietako bitan 2018-2020 hirurtekorako ezarritako jomuga gainditu baita, eta 2030erako Agendari atxikitzeko kanpainak bere bideari jarraitzen dio.

2. irudia. L1.2 Euskadin 2030 Agendaren aplikazioa suspertzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.1.3 1.3 ekintza ildoak: Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezaqutza sustatzea

Herri erakundeetan eta gizartean nazioarteko harremanen ezaqutza bultzatu da hainbat bidetatik: barrutik, Eusko Jaurlaritzako teknikarientzako nazioarteko mugikortasun programa bat martxan jartzeko datuak bilduz; kanpotik, arloan espezializatutako foroekiko harremanen *think tanken* bitartez, esate baterako, Elkano Errege Institutua (2030erako Agendako Lantaldea) edo ITAM (Mexikoko Teknologia Institutua); eta Kanpo Harremanen arloko espezializazio bekak esleitzea bezalako gaitze ekintzen bidez.

Horren osagarri, euskal **kanpo harremanen sozializazioa** bultzatu da Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ordezkaritzen erakunde omenaldiko ekitaldian eta antzekoetan, New Yorkeko eta Buenos Airesko Ordezkaritzen irekieraren 80. urteurrena dela eta, Urkullu Lehendakaria buru zela, Euskadi Basque Country Estrategiari buruzko hitzaldietan Deustuko Unibertsitatean eta BEINT beken heziketa esparruan, edo Madrilan egindako Atzerriko Espainiar Herritarren Foroan.

Jarduera horiek guztiek oihartzun mediatikoa izan dute, komunikabideetan izandako gero eta parte hartze garrantzitsuagatik, non bereziki azpigarriak diren, sailburuen eta sailburuordeen presentzia Europar Batasuneko esparruan, dagozkien agendak hedatzearen ondorioz.

Ildo horretan, **1.3.4 Kanpo harremanetarako bekak** eta **1.3.5 Euskal kanpo harremanen sozializazioa** ildoek 2018rako ezarri ziren jomugak iritsi dituzte. **1.3.1 Teknikarien nazioarteko mugikortasun programa** ildoak % 0 bete da, **1.3.2 Nazioarteko harremanetan espezializatutako foro eta think tankekiko harremanak** % 50, eta **1.3.4 Kanpo harremanetarako bekak**, % 83.


3. taula. L1.3 Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
1. 3. 1. Teknikarien nazioarteko mugikortasun programa	Programa sortzea	0	1
1. 3. 2. Nazioarteko harremanetan espezializatutako foroekiko eta think tankekiko harremanak	Baterako ekinbide kopurua	1	8
1. 3. 3. Nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea	Sarea sortzeko esplorazio azterlana	0	1
1. 3. 4. Kanpo harremanetarako bekak	Emandako beka kopurua	12	36
1. 3. 5. Euskal kanpo harremanen sozializazioa	Kanpo harremanak euskal gizarteari komunikatzeko ekintza kopurua	4	15

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ildo beretik, eta 2020rako helburua kontuan hartuta, **1.3.4 Kanpo harremanetarako bekak eta 1.3.5 Euskal kanpo harremanen sozializazioa ildoak** dira erritmo positiboagoa daukatenak 2020rako planteatutako jomuga lortzeko. Hala ere, eta gainerakoak bezala, Aginte Taulan planteatutako adierazleak, maila desberdinean bada ere, 2018-2020 hirurtekoaren lehen urteari legokiokeen % 30etik behera daude.

3. irudia. L1.3 Nazioartekotze arloan lehiarako adimena eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.2 2. helburua: “Euskadiren presentzia indartzea European”

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren bigarren helburuak **euskal kanpo harremanen lehentasunezko esparrutzat Europa** hartzen du, Euskadik Europaren eraikuntzaren partaide eta erantzulekide izaten jarrai dezan, EBren erabakitze prozesuetan parte hartuz eta euskal eragileak erkidegoko proiektu eta ekinbideetan inplikatur Euskadiren presentzia eta eragiteko ahalmena ikuspegi politiko eta multisektorialetik eta modu publiko-pribatuan hedatzen.

2.2.1 2.1 ekintza ildoak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea

Euskadiren ahotsa Europako erakundeetan bultzatu da, batez ere, nabarmentzekoa da Euskaldeen Batzordean eginiko lana, honen bilkuretan aurkeztu baititu Euskadik zuzenketak bere interesak aldezteko; EBren Kontseiluan; Europako Batzordearen bileretan; Ingurumen Kontseiluan parte hartu da eta Ingurumen Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren esku hartzea gertatu da; eta ECOFIN Kontseiluaren lantaldean ere bai.

2018. urteko ekintza aipagarritzat har daiteke, Europako Etorkizunaren Euskal Ikuspuntuaren onespena, Europar Batasuneko Jean-Claude Juncker Presidenteak botatako Europar Etorkizunaren kontsulta irekiaren esparruan. Dokumentu honek Euskadik, Europar Batasunaren etorkizunari buruz duen ikuspegia islatzen du, gero eta globalizatuago dagoen munduan, interdependentzietan eta mundu mailako arriskuei erantzun bateratuak emateko beharra dagoen testuinguruan. Aldi berean, balio humanistiko sendoetan oinarriturik, bakea eta askatasuna aurreratzea ahalbidetuko lukeen Europa Federal baten eraikuntzaren ideia izan zuten euskal aitzindariak omeldia egin nahi dio.

Halaber, Euskadiren rola eta posizioa bultzatu da **Europako lobby politiko-instituzionalaren** bidez, datozen urteetan EBren bilakaera markatuko duten erronkei begira, Europako Parlamentuaren Espainiako Bulegoko zuzendariarekin bilerak eginez, legegintzako eskumenak dituzten eskualdeekin EBri elkartutako eskualde kontzeptuaren inguruan **Legegintzako Eskumenak dituzten Eskualdeen Posizio Komuna** lantzeko. Horrela Euskal Herriko, Brusela Kapital-eko, Flandes, Nafarroa, Piamonte, Salzburgo eta Gales-eko gobernua, ikuspuntu bateratuaren sinatzaileak, multi-mailako gobernantza efektiboa exigitzen dute, non RLEG-EK eskualdeek erantzukizun partekatua hartzen duten integrazio prozesuan, subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioen deszentralizatutako dimentsioen aplikazio zehatza bermatzen duena, Lamassoure Txostenak eskualde kideari buruz egindako gomendioak barne.

Nabarmenezkoa da baita ere, Europar Legebiltzarrean aurkeztutako euskal ekonomiaren eraldatze esperientzia eta arrakasta faktoreak.

Europar Batasunaren erronkei loturik, bereziki 2018 urtean, Euskadiren interes multisektorialak aldezteko lan egin da **Erresuma Batuak EBtik alde egiteko prozesua** dela eta, Euskadin jardunaldi eta lantaldeetan parte hartuz eta baita ere Eusko Jaurlaritzaren **Brexitaren Jarraipenerako Batzordean**, urtarrilean eta urrian ospatutako bileretan.

Azkenik, eta Estatuarekin Europako gaien arloan dugun harremanari dagokionez, aktiboki hartu dugu parte **Europar Batasunarekin Erlazionatutako Gaien Konferentzian (CARUE)** 2018an, bai osokoan bai koordinatzaileen mailan, eta bilera bat egin dugu EBrako Estatu idazkariarekin.

EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte hartzea indartzeko garatutako lana positiboki islatzen da 2018 urterako Aginte Taulan, ekitaldi honetarako ezarritako jomuga guztiak bete baitira (eta **2.1.1 EBren organo eta erakundeetan parte hartzea, Euskadiren interesak bultzatzeko** ildoaren kasuan bikoiztu ere egin dira).


4. taula. L2.1 ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
2. 1. 1. EBren organo eta erakundeetan parte hartzea Euskadiren interesak bultzatzeko	Koordinatutako EB Kontseilu kop. eta Batzorde Teknikoetako parte-hartze kop.	24	31
2. 1. 2. Euskadiren posizio hartzea EBren etorkizunean	EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena lantzea	1	1
	EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena suspertzen den jarduera kopurua	5	9
2. 1. 3. Euskadiren interesak Brexitaren aurrean	Brexitaren Jarraipen Batzordearen bilera kopurua eta horri buruzko foroetako hitzaldi kopurua	4	12
2. 1. 4. Estatuarekiko harremanak Europako gaietan	Alde Biko Batzordearen bilera kop. eta Europar Batasunarekin Erlazionatutako Gaietarako Konferentziaren bilera kop.	6	13

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Era berean, 2020 urterako planteatutako jomugan kasuan, ekintza ildo guztiak daude % 30etik gora betetze maian, eta gehienak askoz gorago.

4. irudia. L2.1 ildoaren barruan osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren partaidetza indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.2.2 2.2 ekintza ildoak: EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea

2018an **Europa eraikitzeari eta horrek Euskadin duen inpaktuari** buruzko jarduerak zeharo bultzatu dira, hainbat bide erabiliz: Europaren arloari buruzko artikulua argitaratuz, esate baterako ZERGAK edo Eurobasque aldizkarirako egindakoak; eta bereziki Europako gaiekin zerikusia duten konferentzietan eta lantegietan parte hartuz, besteak beste, Euskadiko eragile sozioekonomiko eta instituzionalak **Eskualdeen eta Hirien Europako Astean** inplikatzeko.

Horrekin paraleloan, aktiboki hartu da parte **Europako proiektu eta ekinbideak** aintzat hartzen dituzten jardueren jarraipena, aholkularitza eta partaidetza lantzen, euskal eragileen parte hartzea bultzatzeko eta laguntzeko helburuz, ikuspegi sektorialetik: **Energia Ingurumena, Kultura, Lanbide Heziketa, Hizkuntza Politika eta abar.**

Azpimarragarriak: euskal kooperazio modeloaren posizionamendua Europar Batzordearen Kooperazio eta Lankidetzaren Estrategikoen ad hoc Plataforman; CPMR-ren Task Force bileran Ingurumen Sailak, lurralde plangintzaren bidez, klima aldaketaren egokitze esperientziaren aurkezpena; Kultur Ondarearen Europako Urtearen esparruan Eskualdeen Batzordean gaztediaren inguruan ospaturiko biltzarrean parte hartzea; urteroko Europar Migrazio Foroan parte hartu zen, gizarte zibilaren, Europako erakundearen eta nazioarteko, eskualdeetako eta tokiko agintarien arteko migrazio gaiari buruzko elkarrizketa plataforman; Europar Legebiltzarreko Sormen eta Kultura industriaren talde inter parlamentarioan eginiko hitzaldia Euskal ICC/KSI Berritzaile Estrategia aurkezteko. Europar Legebiltzarrak Skåne eta Euskadi aukeratu zituen KSI praktika egokien adibide bezala; Thematic Platform Days ekitaldia Bilbon antolatzea; Beatriz Artozabal Enplegu eta Gizarte gaitetako Sailburuarekin herritarrekin elkarrizketa Bilbon; EuroBasque Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren Elkartearen Lehendakariaren emandako 2018ko "Lagun Onari" bereizketa, maiatzak 9 Europako Egunean. Euskadiko Baso Bioekonomiaren aurkezpena Forest Europe-ko ekitaldi batean. Bukatzeko aipatzekoa da Euskadi eta euskal FP-a espezializazio/formakuntza eta RIS3/Espezializazio adimentsuaren praktika on bezala aukeratuak direla Europar Batzordeagatik.

Ildo honen barruan jasotako jardueren kasuan, zabal bete dituzte guzti-guztiek 2018 urterako planteatutako jomugak.


5. taula. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
2. 2. 1. Europa eraikitzeari eta Euskadin duen inpaktuari buruzko jarduerak	Europa eraikitzeaz antolatutako ekitaldi kopurua	18	9
	EBren programa, ekinbide eta politikei buruzko txosten kopurua	39	50
2. 2. 2. Europako proiektu eta ekinbideetan eragileek parte hartzeari laguntzea	Europaren esparruan lagundutako proiektu eta ekinbide kopurua	71	150

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2018-2020 hirurtekorako planteatutako jomugak helmugatzat hartuz, **2.2.1 Europa eraikitzeari buruzko jarduerak eta horien eragina Euskadin** ildoak bikoiztu egin du hirurtekorako ezarritako jomuga, eta gainerako ildo biek lehen betetze urterako planteatutako kopurua erraz gainditu dute. **2.2.1 Europa eraikitzeari buruzko jarduerak eta horien eragina Euskadin** ildoaren kasuan % 78, eta **2.2.2 Europako proiektu eta ekinbideetan eragileek parte hartzeari laguntzea** ildoaren kasuan % 47.

5. irudia. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza erraztea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.3 3. helburua: “Munduko euskal interesak bultzatzea”

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren hirugarren helburua **nazioarteko harremanen egitura sendo, egonkor eta iraunkor bat garatu eta mantentzea** da, euskal gizartearen atzerriko interesak babesteko, interes sektorialak babestuz, aliantza estrategikoak garatu eta finkatuz, eta Euskadin euskal diasporaren kontzientzia hartuz eta kanpoko euskal gizataldea indartuz.

2.3.1 3.1 ekintza ildo: Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea

Euskadiren alde biko harremanak indartu egin dira batez ere **Urkullu Lehendakariak lehentasunezko zenbait herrialde eta eskualdetara egin dituen bidaia ofizialei** esker, hau da, Txilera, Argentinara edo Galesera. Azken honetan, Lehendakaria Galeseko Lehen Ministroarekin bildu ze eta elkar ulertzeko memorandum bat sinatu zuten.

Paraleloan, **erakunde ordezkari garrantzitsuek** bisita egin zuten Euskadin eta Urkullu Lehendakariarekin bilerak izan zituzten, besteak beste, Emilia-Romagnako presidente jauna, Risaraldako gobernadore jauna, Nevadako gobernadore jauna, Seulgo alkate jauna, Txileko Etxebizitza eta Hirigintza ministro jauna, Kolonbiako Lan eta Justizia kontseilari andrea, Gizarte Segurantzaren Iberoamerikar Antolakundeko idazkari nagusi andrearena, Zeelanda Berriko Parlamentuko presidentearena, edo Costa Rica, Kazakhstan, Israel, Norvegia, Suitza, Georgia edo Eireko enbaxadoreenak.

Europaren esparruan, Lehendakaria Karl Heinz Lambertz **Eskualdeen Batzordeko buruarekin** bildu zen, eta, bereziki, Bruselako Ordezkaritzatik **Europako erakundeetara sailburuen bisitak** antolatu ziren, esate baterako, Artolazaba eta Azpiazu sailburuenak.

Gainera, **nazioarteko liderrekiko harremanak** sustatzeari dagokionez, Kolonbiako Learning Tour baten harrera gailendu zen, politikariak, kazetariak eta enpresa munduko eta mundu akademikoko ordezkariak etorri baitziren. Bisita horretan zehar erakunde, enpresa eta kultura mailako bilerak eman ziren hiru lurralde historikoetan. Topaketak gertatu ziren Iñigo Urkullu lehendakariarekin, Eusko Legebiltzarrarekin (Bakartxo Telleria presidente andrea eta Kanpo Harremanetako Komisioarekin), Javier Zarraonaindia Industria Sailburuordearekin, Basque Culinary Center-arekin, Tknika... beste askoren artean.

Diplomazia publikoko ekintzei dagokienez, kultura arloan egindako jarduerak azpimarratu behar dira, bereziki Cultural Diplomacy Platform eta EUNIC Global lankide hartuta egindako baterako lana kideko eragileen diplomazia kulturalarekin eta nazioartekotzearekin erlazioatutako Europako narratiban Euskadi posizionatzeko.

Jarduera ildo honekin erlazioatuta, euskal eragileak aitzindari diren eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bultzatzen dituen **kanpoko nazioartekotze proiektuetarako laguntza** ere badago. Arlo honetan aipagarriak izan ziren kultura arloan egindako lana (itzuli musikala Mexikon), Bilbao Exhibition Centre erakusguneari Ameriketako Estatu Batuetan emandako babesak edo Goierri Valley-ko bisita antolaketa (metal-mekanika sektorea), eta Euskal Merkataritza Ganbarekin (multisektoriala) Mexikon eta Argentinan egindakoa.

Ildo honen barruan planteatutako jardueren kasuan, horietako bik 2018 urterako planteatutako jomugak gainditzen dituzte (**3.1.1 Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak, eta 3.1.3 Ordezkaritza diplomatikoeikiko harremanak**). Aitzitik, **3.1.2 Nazioarteko liderrekiko harremanak**, eta **3.1.5 Kanpoan nazioartekotzeko proiektuei laguntzea** ildoak ez dira heldu 2018rako ezarritako jomugara.


6. taula. 3.1.3 Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
3. 1. 1. Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak	Idazkaritzak antolatuta edo <i>berarekin</i> elkarlanean kanpora/kanpotik egindako erakunde bidaien kop.	41	55
3. 1. 2. Nazioarteko liderrekiko harremanak	<i>Antolatutako Learning Tour kop.</i>	1	5
3. 1. 3. Ordezkaritza diplomatikoeikiko harremanak	<i>Lehendakariak ordezkaritza diplomatikoeikin egindako bilera kopurua</i>	16	50
	<i>Gorputz diplomatikoko ordezkariekin antolatutako gosari, bilera eta lan-foroen kopurua</i>	13	31
3. 1. 4. Diplomazia publikoko ekintzak	<i>Kanpoan egindako diplomazia publikoko ekintza kopurua</i>	2	18
3. 1. 5. Kanpoan nazioartekotzeko proiektuak babestea	<i>Lagundutako nazioartekotze proiektuen kopurua</i>	7	60

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Era berean, **3.1.1 Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak eta 3.1.3 Ordezkaritza diplomatikoeikiko harremanak** ildoek 2020rako ezarritako jomugen aldean jardueraren % 30 osatu dute, eta helburuen azpitik geratu dira **3.1.2 Nazioarteko liderrekiko harremanak, 3.1.4 Diplomazia publikoko ekintzak eta 3.1.5 Kanpoan nazioartekotzeko proiektuak babestea** ildoak.

6. irudia. L3.1 Kanpoan Euskadiren interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.3.2 3.2 ekintza ildoak: Aliantza estrategikoak qaratu eta finkatzea

Ildo honetan sartzen da nazioarteko erakundeekiko, lehenasunezko herrialde eta eskualdeekiko eta nazioarteko sareekiko harremanak garatzera eta finkatzera bideratutako jarduerak.

2020rako Euskadi Basque Country Estrategian lehenasuna eman zaien eskualde eta herrialdeekiko harremanei dagokienez 3.1 ekintzan jasotako Urkullu Lehendakariaren eta sailburuen bidaia eta harreretan ezarritako maila goreneko harremanez gain, nabarmentzekoak dira Emakundek eta Txileko Emakumearen eta Ekitatearen Ministerioak izenpetutako MoU, Eusko Jaurlaritzak eta Kolonbiako Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak izenpetutako asmoen gutuna, Euskadi-Flandria MoUaren esparruan Flandriako ministro-presidenteak eta eskualde horretako Sormen Barrutiko arduradunen lan misio batek Euskadira egindako bisita, Quebecoko Nazioarteko eta Frankofoniarekiko Harremanetarako ministroordearen bisita, kultura Sailaren eta Etxepare Institutuaren bisita Quebecera, eta Galesko Gobernuaren ordezkaritza batek Euskadira egindako bisita.

Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa Euroeskualdearen barruan azpimarratzekoa da aktiboki parte hartu izana LLET horren bileretan, baita Iparraldeko Mankomunitatean eta mankomunitatearekin. Lehenengoari dagokionez, ekainan hain zuzen ere, Euroeskualdearen presidentzia Akitania Berritik Nafarrora eskualdatzeko aparteko Batzar Orokorra ospatu zen. Era berean Plan Estrategikoaren eraberritzea onetsi zen Akitaniar eskualdearen zabalkuntza eta Nafarroako Foru Erkidegoaren eransketarekin. Mankomunitateari dagokionez, urtarrilean etorkizuneko kolaborazio eta kooperazioaren oinarriak esertzeko bilera teknikoa ospatu zen. Ekintza eremu horretan ere Pirinietako Lan Komunitatearen osoko kontseiluetan eta Batzorde Betearazlean, EMEEren (Europar Muga Eskualdeen Erakundea) Batzar Orokorrean parte hartzen da.

Beste alde batetik, eta **interes estrategikoko sareetan Euskadik parte hartzeari** dagokionez, agerian dago ORU-FOGAR (Eskualde Batuen Erakundea) sareko inplikazioa, eta Europako esparruan alderdi anitzeko sare eta ekinbideetako, hala nola, EARLALL (Etengabeko Ikaskuntzako Toki eta Eskualdeetako Agintaritzen Europako Elkartea) , RICC (Regional Initiative for Culture and Creativity), EUNIC (European Union National Institutes for Culture), Vanguard Initiative, European GMO-Free Regions eta IEPK (Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzia), bai eta Arku Atlantikoko batzordean ere. Ildo horretan, 2018ko ORU-FOGAR Batzarrean eta elikadura segurtasun eta burujabetzari buruzko «Zero gose» Eskualdeen 11. Mundu Foroan hartu da parte.

Ekintza ildo honen barruan programatutako jardueren betetze mailari dagokionez, horietako batzuek erraz gainditu dituzte 2018rako ezarritako jomugak, hauek dira, **3.2.1 Nazioarteko erakundeekiko elkarlana** ildo, **3.2.3 Bazkide Estrategikoen Sarearekiko harremanak** ildo, **3.2.4 Mugaz gaindiko eta lurraldeko lankidetzak** ildo edo, zati batean, **3.2.5 Nazioarteko Sareetan presentzia izatea** ildo (bakarrik jarduera honen adierazleeta batean).


7. taula. L3.2 Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
3. 2. 1. Nazioarteko erakundeekiko elkarlana	Nazioarteko erakundeekin egindako baterako ekinbide kop.	9	12
3. 2. 2. Lehenetsuneko herrialdeekiko harremanak	Lehenetsun herrialdeetako gobernu edo erakundeekin egindako baterako ekinbide kop.	5	25
3. 2. 3. Bazkide Estrategikoen Sarearekiko harremanak	Bazkide Estrategikoen Sarearen barruko baterako ekinbide kopurua	10	20
3. 2. 4. Mugaz gaidiko eta lurraldeko lankidetzak	Elkarrekin ekindako mugaz gaidiko eta eskualdearteko lankidetzak ekinbide eta proiektuen kopurua	21	21
3. 2. 5. Nazioarteko sareetako presentzia	Identifikatutako sare sektorial berrien kop.	0	6
	Sareen gobernantza organoetako partaidetza kopurua	11	25
3. 2. 6. Laguntza teknikoko proiektuak babesteko ildoak	Babestutako proiektu kop.	0	6

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2020ko denbora esparruari dagozkion ekintzen betetze maila dela eta, ekintza ildoek (3.2.2. **Lehenetsuneko herrialdeekiko harremanak**, 3.2.5 **Nazioarteko sareetan presentzia izatea** eta 3.2.6 **Laguntza teknikoko proiektuak babesteko ildoak**) ez dute gaitzen lehen ekitaldi honetan bete beharrekoa, % 30, eta betetze maila bereziki apala da 3.2.2 eta 3.2.6 ildoetan.

7. irudia. L3.2 Aliantza estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

2.3.3 3.3 ekintza ildoak: Euskal qizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal qizataldea indartzea

2018 urtean **Euskal Etxeen erroldan Argentinako eta Peruko beste etxe bi gehitu dira**, eta guztira 193 dira orain. Euskal Etxeen sarea eta euren jarduera finkatzea lanaren zutabeetako bat izan da oraindik ere, bereziki Kanpoko Euskal Gizatalderako Zuzendaritzatik eta ordezkarietatik, Euskal Etxeetarako diru-laguntza larroak bezalako ekinbideak abiarazi eta berreginez. Gainera, eta aurreko ekitaldietan egiten izan den bezala, Euskal Etxeei laguntza eman zaie oro har euren jarduerarako eta euskal kultura suspertzeko, eta nabarmentzekoa da **Mar del Platan (Argentina) egindako Erdi eta Hegoaldeko Amerikako II. Eskualde Bilera**, Urkullu lehendakaria amaiera ekitaldian buru izan zuena eta 10 herrialdeetako ordezkariak bildu zituen: Argentina, Uruguai, Brasil, Txile, Peru, Venezuela, Kolonbia, Kuba, Paraguai eta El Salvador.

Horren osagarri, **euskal erkidego global bat eraikitzen** aurrera egiten jarraitu da, Gaztemundu Programaren beste edizio baten bidez eta 2018 urtea 2192 erabiltzaile izan zituen Basque Global Network-a bultzatuz. Kanpoko euskal gizataldeari arreta egiteak gainera funtsezko rola izaten jarraitu zuen, bai Euskal Etxeei prestazio ekonomikoen deialdiak eginez, sorospen beharrei eta muturreko behar egoerei aurre egiteko, bai itzultzeko kasuei arreta eginez.

Bai kanpoan bai Euskadin diasporari buruz zabalkundea egitea eta kontzientzia hartzea dela eta, 2018an nahikunde hori indartzera bideratutako garrantzi handiko zedarrak bi gertatu ziren: alde batetik, Euskal Diasporaren Eguna ospatu zen lehen aldiz irailaren 8an, 1522an Juan Sebastian Elkanok “euskaldun unibertsalak” munduari lehen bira ematearen urteurrenarekin bat egiteko, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeak proposatutako datan. Euskal Etxeen eta atzerriko euskal komunitatea osatzen duten pertsona guztiei eskainitako esker oneko eguna omen da.

Beste alde batetik, Kanpoko Euskal Gizataldeen Memoriaren Artxiboa sortu zen Euskadiko Artxibo Historikoaren barruan. Euskal Diasporaren Artxiboa, euskal emigrazioaren funtsa sortzeko abian dagoen proiektua da. Euskadiko Artxibo historikoan (Bilbon) kokatua, historian zehar euskal gizataldeen memoriaren eta jardueren buruzko dokumentazioa biltzen du, publiko orokor eta ikertzaileengana iristeko helburuarekin, Euskal Historiaren analisisa eta zabalkundea lurraldetik kanpo ahalbidetzeko.

Ekintza ildo honekin erlazionatutako adierazleak betetzeari dagokionez, **3.3.2 XXI. mendeko euskal erkidegoa eta 3.3.3 Euskadin diasporari buruzko ezagutza sustatzea** jardueretan 2018rako planteatu ziren helburuak erraz bete dira, eta behar larriko laguntzei dagokienez ere bai, **3.3.4 Kanpoko euskal gizataldeari arreta egitea** jardueran. **3.3.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea** jardueraren adierazleek ez dituzte gairak 2018rako ezarri ziren jomugak, bereziki espedienteen izapideak bide elektronikoz egiteari dagokionez. Era berean, eta **3.3.4 Kanpoko euskal gizataldeari arreta egitea** ildoaren barruan, kasu egin zaien itzulera kasuen kopurua pentsatutako jomuga baino apur bat txikiagoa izan da.


8. taula. L3.3 ildoaren barruan 2018an osatutako jarduerak. Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea

Jarduera	Adierazlea	2018an osatua	2020rako jomuga
3. 3. 1. Euskal Etxeen sarea finkatzea	<i>Diru-laguntza lerroen bidez babestutako Euskal Etxeen jarduera kopurua</i>	408	2000
	<i>Egoitza elektronikotik egindako espediente kop.</i>	0	600
3. 3. 2. XXI. mendeko euskal erkidegoa	<i>Gaztemundu programako partaide kopurua</i>	15	45
	<i>Basque Global Network sarearen erabiltzaile kopurua</i>	2192	2000
3. 3. 3. Euskadin diasporari buruzko ezagutza sustatzea	<i>Ikerketa eta zabalkunde ekinbideen kopurua</i>	4	10
	<i>Euskal Diasporaren Eguna ezartzea</i>	1	1
3. 3. 4. Kanpoko euskal gizataldeari arreta egitea	<i>Behar larriko laguntzen onuradun diren familia unitateen kopurua</i>	109	300
	<i>Artatu diren itzulera kasuen kop.</i>	14	60

Iturria: Geuk egin Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ildo horretan berean eta 2020 urterako ezarritako jomugak kontuan hartuta, 3.3.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea eta 3.3.4 Kanpoko euskal gizataldeari arreta egitea (artatutako itzuleren kasuan bakarrik) ildoak dira 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planean jasotako hirurtekoaren lehen ekitaldirako planifikatutako aurrerabideari dagokion % 30aren azpitik daudenak.

8. irudia. L3.3 ildoaren barruan osatutako jarduerak: Euskal gizartearen diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


3 ONDORIOAK

2017 urtea hausnarketa urtea eta ildo horretan birformulazio urtea izan bazen ere, 2018 **Estrategia eguneratu baten abiapuntua** izan da, XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa eta euskal gizartearen kanpo protagonismoan hainbat eremutatik eragiten duten erronka berriak kontuan hartzen duen estrategia. Abiapuntua Euskadi Basque Country Estrategia eguneratuaren eta **2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plan berriaren** aurkezpena izan zen, Urkullu Lehendakariak aurkeztu zuen euskal gizartearen ordezkaritza zabal baten aurrean 2018ko urtarrilean.

Urte horretan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren lana 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planean markatutako hiru helburuak betetzera orientatuta egon da.

Maila orokorrean, **2018rako planteatutako jomugak kasuen % 61ean bete eta/edo gainditu dira**, hau da, planteatutako kontroleko 44 adierazleetatik 27tan. Horietako 7tan (% 16) planteatutako jomugaren % 50 eta % 100 bitartean bete da; 44etatik 3tan (% 7) ez da heldu planifikatutakoaren % 50 betetzera eta horietako 9tan (% 20) ez da jarduerarik egin.


9. irudia. % 100, >% 50, <% 50 eta % 0 bete diren jomugaren ehunekoa



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

1. helburuari, Euskadi eragile globalaren posizioan jartzea, dagokionez, planteatutako jomugaren % 57 lortu egin dira. Azkenik, eta 3. helburuari, Munduko euskal interesak bultzatzea, dagokionez, jomugarik gehienek euren helburuak lortu dituzte (% 47), eta, betetze maila desberdinekin bada ere, guztiek izan dute jarduera.

10. irudia. % 100, >% 50, <% 50 eta % 0 bete diren jomugen ehunekoa, helburu estrategikoaren arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Nolanahi ere, handia da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia osatzen duten zuzendaritzek eta ordezkaritzek egindako lana, Euskadiri eragile globalaren posizioa emateko, Europaren proiektua eraikitzen espazio propioa duela, eta munduko euskal interesak suspertzeko.

1. helburuari, Euskadiri eragile globalaren posizioa ematea, dagokionez, egindako lanari esker Euskadi Herrialde lehiakor eta erakargarri gisa eta erronka globalekin konpromiso sendoa duena bezala proiektatu da, eta testuinguru globalean pisua eta posizioa irabaztea lortu da.

Herrialde marka, lurraldearen indarguneak, berezitasunak, balioak eta dohainak proiektatzeko lehen zutabea, bai kanpoko ordezkaritzek bai Euskal Etxeek antolatutako ekitaldietan finkatu da, esate baterako, Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketa Txilen eta Argentinan, edo Bruselako Euskal Astearen lehen ospakizuna; eta euskal eragileei euren nazioarteko proiektzioan laguntasuna ematea, oso arlo desberdinetan, hala nola, industrian, genero berdintasunean edo hirigintzan. Jarduera horiek guztiek “Euskadi Basque Country” markaren inguruan borondateak eta ekinbideak biltzeko balio izan du, bai ikuspegi publikotik bai pribatutik, izan ere, marka, komunikazio tresna denez, erakunde arlotik harago joanez, nazioarteko jarduera egiten duten euskal eragileen ekosistemak bereganatu du.

Gainera, euskal gizarteak 2030 Agendarekin duen konpromisoa nazioartean zabaldu izanak areagotu egin du Euskadiren atzerriko proiektzioa, Euskadi 2030 Agenda onartuz eta nazioartean haren zabalkundea egitera orientaturiko aliantzak eta lankidetzak garatuz. Ildo horretan Nazio Batuen High Level Political Forum-en parte hartu izana nabarmentzen da, han Euskadik ahotsa izan baitzuen GIHak lortzeko maila anitzeko gobernantzaren garrantzia azpimarratzeko, eta 2030 Agendarako euskal ekarpena azpimarratzeko aukera izan zuen. Euskadi, horrela, GIHak erakunde maila guztietan integartzeko nazioarteko erreferentzia izateko bidetik doa, GIHak erabakitzekeo lurraldeen rola indartuz.

Bestalde, lehiarako adimena bultzatzen jarraitu da nazioartekotze arloan, Euskadiren nazioarteko posizioa etengabe hobetzea lortzeko, kanpo harremanen bidez, Kanpo Harremanetarako bekak edo euskal kanpo harremanak sozializatzeko egin diren hainbeste ekintza baliatuz.

2. helburuaren barruan, Euskadiren presentzia indartzea Europan, lanean jarraitu da Euskadik Europa eraikitzen partaide eta ardurakide izaten jarrai dezan, bere presentzia eta eragina hedatuz Europan ikuspegi politiko eta multisektorialetik eta modu publiko-pribatuan.

Horren inguruan, lan eskerga egin da Euskadik EBren erabakitze prozesuetan parte hartzea indartzeko, bereziki erronka handiei aurre egin zaien urte batean, Brexita edo Europaren etorkizunaren definizioa, kasu. Testuinguru horretan Euskadik Europa eraikitzen lagundu du Legegintza Eskumenak dituzten Eskualdeen Posizio Komuna landuz, edo Europaren Etorkizunari buruzko Euskal Ikuspena onartuz. Era berean, jarduera osagarriak egin dira euskal eragileek Europako proiektu eta ekinbideetan parte hartzea suspertzeko, ikuspegi multisektorialetik eta modu publiko-pribatuan.

Azkenik, eta **3. helburuari, Munduko euskal interesak bultzatzea,** dagokionez, nazioarteko harremanen egitura sendo, egonkor eta iraunkor bat mantentzeko eta ehuntzen jarraitzeko helburuz egin den lana azpimarratu behar da, euskal gizartearen kanpoko interesak babesteko egin baita.

Ildo horretan, alde biko eta alde anitzeko harremanak areagotu eta finkatu dira, nazioarteko erakundeekin, eta lehentasunezko eskualde eta herrialdeekin. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak atzerriko gobernu eta erakunde publikoekiko ahaleginak bateratu ditu, kanpoan Euskadiren errealitate multisektoriala proiektatzeko. Alde horretatik azpimarratzekoak dira Urkullu Lehendakariak Txilera eta Argentinara egin dituen bidaia ofizialak, haietako presidenteeekin maila goreneko bilerak egiteko, edo Lehendakariak Galesko lehen ministroarekin

eta Flandriako presidentearekin egin dituen bilerak, Euskadiren Eskualde Estrategikoen Sarea osatzen duten eskualdeak baitira.

Nazioarteko erakundeekiko harremanak ere indartu dira, lotura sendo eta egonkorren sare bat mantendu eta eraikitzeko. Testuinguru honetan eta Europaren esparruan, azpimarratu egin behar dira Lehendakariak Karl Heinz Lambertz Eskualdeen Batzordeko buruarekin egindako bilerak, eta, bereziki, Bruselako Ordezkaritzatik Europako erakundeetara sailburuen bisitak egiteko laguntza.

Learning Tour-ak eta diplomazia publikoko ekintzak, gainera, funtsezkoak izan dira euskal errealitatearen zabalkundea egiteko, bai funtsezko pertsona ezagunen bidez, Kolonbiako Learning Tour-a bezala, bai kultura arloan egindako jardueren bidez.

Horren osagarri, eta munduko euskal interesak bultzatzearekin bat eginez, kanpoko euskal gizataldea babesteko jarraitu da lanean, eta, «Diasporizatu» goiburuaren ildotik, Euskadin Diasporaren ezagutza suspertzeko zenbait neurriekin, hots, Euskal Diasporaren Egunaren lehen edizioaren ospakizuna edo Kanpoko Euskal Gizataldeen Memoriaren Artxiboaren sorrera. Gainera, Euskal Etxeen sarea indartzen jarraitu da, guztira 2018an 193 izanik, eta XXI. mendeko diaspora berriaren beharrak identifikatu dira, bereziki Basque Global Network sarearen bitartez.

Azken batean, 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plan berrian markatutako helburuak lortzera guztiz orientaturik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egindako lanak Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak bultzatzen lagundu du, Euskadiren posizioa eragile global gisa hobetzeko, Europaren proiektua eraikitzen espazio propioa izanik, eta, azken finean, gero eta mundu globalizatuago, interkonektatuago eta interdependenteago honetan euskal interesak bultzatzeko.